

84. FITXA GIPUZKOA – Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren plangintza, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera toki mailan bultzatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak eta udal erakunde autonomoak, toki-erakunde txikiak, mankomunitateak eta sektore publikoko erakundeen partaidetza duten udalerriko edo eskualdeko merkataritza sozietateak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziako araudia: [Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, toki-entitate txikiei, mankomunitateei eta merkataritza udal eta eskualde sozietateei trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren plangintza, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera toki mailan bultzatzeko.](#)

Eremuak: Klima aldaketa eta energia-trantsizioa

Zenbatekoa: 390.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/03/12

Laburpena

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak ematea, elkarrekiko norgehiagokaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, toki-erakunde txikiei, mankomunitateei eta merkataritza udal eta eskualde sozietateei, azterketak, planak eta proiektuak egin ditzaten, helburu dutelarik **trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren plangintza, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.**

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Diruz lagungarriak izango dira:

A. Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko planak eta azterketak:

A.1. Orokorrak.

- 1/2024 Legean, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena, xedatutakoa jasotzen dituzten udal mailako klima- eta energia-planak.
- 4/2019 Legean, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, eta 254/2020 Dekretuan, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa, xedatutakoa jasotzen dituzten energia-jarduketan planak.
- Hirigintza-plangintzaren jasangarritasun energetikoari buruzko azterketak.
- Mugikortasun eta garraio publikoko udal planak eta emisio gutxiko udal eremuak ezartzeari lotutakoak.
- Pobrezia eta zaugarritasun energetikoa gutxitzeko (zuzentzeko eta prebenitzeko) azterlan eta planak.

A.2. Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera.

- Sektore publikoan, eraikin publikoen, ibilgailuen eta instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzeko auditoriak, azterlanak eta planak.
- Bizitegi-auzoetan, industrialdeetan, landa guneeetan eta abarretan, energia eraginkortasuna hobetzeko planak eta azterketak.
- Energia berriztagarri elikatutako distrituko bero sareak edo argindar sare banatuak jartzeko bideragarritasun azterketak.
- Energia berriztagarriaren bidezko energia eta bero ekoizpenaren potentzialari eta dauden baliabideei buruzko azterketak.
- Energia berriztagarrietan eta hondar-beroan oinarritutako instalazioak gauzatzeko proiektuak idaztea.
- Eraikin publikoetan energia berriztagarrien instalazioak jartzeko bideragarritasun azterketak.
- Eraikin eta instalazioen kontsumoak kontrolatzeko sistemak.

B. Proiektuak eta inbertsioak egitea energia berriztagarriko instalazio berrietan edo lehendik daudenak handitzea eta zaharberitzea:

- Tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak.
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoak eta instalazio eolikoak, bai sare elektrikotik isolatutakoak bai sare elektrikora konektatutakoak, eraikin eta instalazio publikoen autokontsumorako.
- Biomasa, geotermia, aerotermia eta hondar beroa energetikoki ustiatzeko instalazioak. Halaber, aurrez adierazitako energia iturriak erabiltzen dituzten egungo district heating-cooling-ren instalazioetan lotura edo konexio berriak diruz lagunduko dira.
- Energia Aurrezteko Eraikuntza Kode Teknikoaren (aurrerantzean EKT) Oinarrizko Dokumentuaren HE 4 atalean zehaztutako parametroak betetzen dituzten bero-ponpak, energia berriztagarria hornitzen dutela pentsa baitaiteke.

Entitate bakoitzak, **gehienez, bi eskaera** egin ahal izango ditu; horietako bat A) atalean, Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari Energiari buruzko planak eta azterketak, sartu beharko da, eta bestea, B) atalean, proiektuak eta inbertsioak energia berriztagarriak erabiltzen diren instalazioetan.

Gastuetarako aldi hautagarria

Jarduketak hasi gabe egon behar du **2025eko urtarrilaren 1ean**. Jarduera gauzatzeko eta justifikatzeko

epea **2025eko urriaren 31n** amaituko da.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntza ezin izango da diruz lagundu daitezkeen gastuen **% 75** baino handiagoa izan planen eta azterlanen kasuan, ezta **% 50** baino handiagoa ere energia berriztagarrien instalazioetan egindako proiektuen eta inbertsioen kasuan, ezta **15.000 euro** baino gehiagokoa eskaera bakoitzeko plan eta azterlanetarako eta **35.000 euro** baino gehiagokoa proiektu eta inbertsioetarako.

Ez dira dirulaguntza deialdi honetan sartuko kostu lagungarria **3.000 euro** baino txikiagoa daukaten jarduerak, salbu eta dirulaguntzaren eskatzailea 5.000 biztanletik beherako udalerrri bat bada.